

**HITZ HASIERAN AGERTZEN DIREN  
IA-, IE-, IO-, IU- BI SILABAKOAK NOLA  
EMAN EUSKAL TOPONIMIAN (\*)**

*Bilbao, 1988-1-21*

*Alfonso Irigoien*

Nafarroako gobernuak eskaturik Euskaltzaindia egiten ari den lanari dagokiola, hau da, hiri, herri eta auzo izenen euskal formak finkatzeari dagokiola, ortografiatzeko arazo bat agertu da, lehen ere kasuren baten ondo erabaki gabe gelditu zena, Bizkairako *Iurreta* eman baitzen, eta ondorioz herrialde zabaletan lau silabatan ahoskatu beharrean hirutan egiteko arrisku nabarmena baitago, erdarazko *Yurreta* forman gertatzen den bezala, bertakoek *[dʒ]orreta*, eta urrunagokoei *Ixorreta* ere bai, eta abar, esaten dutela.

Bizkaian erdaraz *Yurre* den formarako, ordea, *Igorre* eman zen, bertakoan artean ezaguna dena ontzat harturik, ahoskatzerakoan *[j]*-aren kontrako *-g-* bat sortu baita, Nafarroako *Igantzi*-ren kasuan bezala, erdaraz *Yanci*, edo *Agoitz*-enean bezala, erdaraz *Aoiz*, berez *\*Aioitz* batetik bailetorke, latinezko *Aionis* patronimikotik, hau da, *Aio* formaren genitibotik (1).

Arabakorako *Ihurre* utzi zen, erdaraz *Yurre*, gogoan izanik Donemiliaga Kukullako kartularioan 1025-garren urtean horrela agertzen dela, *h* aspiratu eta guzti, egungo eguneko euskaldunen lekukotasunik ez dugula. Gipuzkoako Olaberria herrikorako, ordea, *Iurre* (2).

---

(\*) Euskaltzaindiari egiten zaion proposamena, ikertu eta gero ondo baleritza agiriko zerbait adieraz lezan.

(1) Euskaltzaindia, *Euskal Herriko udalen izendegia*, Bilbao 1979.

Ikus baita ere II. Euskal mundu biltzarrera iaz aurkeztatu nuen lana, "Algunas cuestiones relacionadas con la *[j]* en lengua vasca".

Arratian beste batzu *Iorre* hiru silabatan ematen dute.

(2) *Euskal Herriko autonomi elkarteko herrien izenak - Relación de las poblaciones de la Comunidad autónoma del País Vasco*, Hizkuntz politikarako idazkaritza, Eusko Jaurlaritza - Euskaltzaindia, Gasteiz 1986.

Nafarroan, alabaina, badira beste kasu batzu ere. *Yabar* erdarazkoa inguruko euskaldunen artean *lyebarre* moduan ebakitzen da, *i-* eta *-a-*ren artean *[j]* bat garaturik eta aurreko *i-*ren ondorik *-a-* > *-e-* bihurturik, eta gainera *-e* paragogikoa ere itsatsirik, inesibo kasuan ahoskatzeko beharrezko den epentetikoa hain zuzen ere. Hori orduan *labar* moduan eman zen, *[j]*-aren garatzea eta kondizio horietan *-a-* > *-e-* bilakatzea ez baitira hizkuntza normalizatuan idazterakoan aintzat hartzen eta inesibo kasuan nahi ta nahi ez *labarren* esan behar baita. Baina *labar* hiru silabakoa da eta bitan emateko arriskua dago idatziriko letrak duen eraginez, *jadanik* forma ere, *iadanik* erara ahoskatzen dena, hiru silabatan esaten baita, edo *josi*, *jausi*, *jautsi*, *jaso*, *jasan*, *jaiki*, *jalgi*, *jantzi*, eta abar, bitan.

*Igantzi* bera ere zenbaitek *Iantzi* esaten du, ontzat eman zen forman bezala hiru silabatan.

Baina badira gehiago ere erabaki beharreko direnak: erdaraz *Yaben*, *Yelz* (Lizoain), *Yarnoz* (Elortzibar), erakoak. Lehenengoaren kasuan hiru silabatan ematen omen dute bertako euskaldunek, *leben* eginik. Beraz normalizaturik *laben*, hiru silabatan ahoskatzeko, eta ez bitan.

Arabako *Yurre*-ren kasuan *Ihurre* euskarazkoan agertzen den *-h-* bokalartekoa zaharra da, etimologikoa, baina *labar*, *laben*, eta abar, formetan eman bagenez ziurrenik ez litzateke, *Igantzi* erara finkatu zen *Iantzi* aldagarrian ere ez litzatekeen bezala, XIV-garren mendean *Eançi* dokumentatzen baita (1366, *PN-XIV*, *F. Pamp.-Mont.*, 531 orr.) (3), eta bide horretarik *\*Eiantzi* forma jatorrizkoa bazela suposa baitezakegu, 1068-garren urteko *Eiaurrieta* zaharra erdaraz *[j]*-aren eraginez *Jaurrieta* eta bertako euskaldunen artean *[j]* galdurik *Eaurta* den antzera (4).

Hala ere *-h-* bokalartekoa halako kasuetan erabiltzea badirudi argitasunerako gendukeen bide egokienetariko bat litzatekeela. Silaba bereizi behar dela besterik ez luke adieraziko. Horrela *Ihabar* eta *Ihaben* emango genituzke. Eta beste alderdi batetik *Ihurreta*, edo ta zuzenduz gero *Ihorreta*, ez baitago arrazoirik *Igorre* ontzat hartu zelarik, *-o-* duela ez ipintzeko, halakoetan *-h-* etimologikoa ontzat harturik, *Zuhatzu* eta antzekoetan ontzat hartu zen bezala, ikus Nafarroarako: erdaraz *Zuazu*, Arakil-en, bertako euskaldunek *Zubetzu*, normalizaturik *Zuhatzu*.

(3) JUAN CARRASCO PÉREZ, *La Población de Navarra en el siglo XIV*, Pamplona 1973.

(4) Leire-ko Bezerro zaharrean 1068-rako *Eiaurrieta* biltzen du Zierbide-k, "Índice completo de topónimos citados en el Becerro Antiguo de Leire", *FLV*, IX (1977), 137 orr. Ikus baita ere Michelena, *Fonética histórica vasca*, 9.7, adic., 517 orr., eta *Apellidos vascos*, n.º 590b, eta neure *En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica*, §72, 232 orr.

*Jaurrieta* XIV-garren mendean (1366, *PN-XIV*, *F. Sang.*, 475 eta 503 orr.).

Erdaraz ere *Huici* aspaldidanik *h*- duela idatzi izan da, bestela, hasieran *u*- duela, *Bizi* irakurtzen baitzuten, eta ez *Uici*, egungo egunean irakurriko gendukeen moduan. Berdin gertatzen da *huevo* hitz arruntarekin, aldamenean *óvulo* duela, ez batean eta ez bestean sekula ahostatu ez den *h*-rik gabe.

Guzti honetan oinarri harturik Euskaltzaindiari izkribu honen beronen bidez proposatzen zaio *Ihabar* eta *Ihaben* moduko toponimoetan *-h*-bokal arteko grafiak euskarazko grafiatzat eman ditzan.

Eta denbora berean Bizkairako *Ihorreta*, eta Gipuzkoako Olaberrirako *Ihurre* ere ontzat har ditzan, *Igorre* eta *Igantzi* dauden bezala utzirik, eskatzen zaio.